

Irakurri dut Jururú. Leku ederra begitantzen zait. Ikusi ditut argazkiak, Urrutia Capeau margolari finak, argazkilari ez hain fin eta abilak eginak, eta esateko moduan nago: leku ederra da. Habanako mundua eta Cienfuegos besterik ibili ez dugunoi Kubako bazter gordea zitzaigun orain artean Jururú, gune geografiko arrotz eta estrainioa, han, nonbait, irlaren ekialdean. Leku ederra, ez guk orain eta hemen deskubrituko duguna. Ez alferrik ageri da Jururú Kristobal Kolonen morroiek oina jarri zuten lurren artean. Leku ederra Jururú, Frai Benito eta Freire, Carenero eta La Lomita, La Aldea eta El Monumento. Monumentua, bistan da, Kolonen marinela heldu ziren lekua. Argazki ederrak egiteko leku ederra Jururú, postal zoragarri bat. Jururún bete-betean dugu natura, bete-betean itsasoa, bete-betean Karibe.

Irakurri dut Jururú. Paisaia ikusgarriena baino ederragoa zait Urrutia Capeauren *Jururú*. Liburua. Ekarri digun narrazioa. Mundu bat hogeitaka istoriotan osatua, hogeitaka istorio bata bestearen osagarri, bata besteari loturik, Jururúko unibertso tiki-handia kontagai: guztietan ere Jururú da ageri eta ondoko El Cayo, El Esterito edo La Playita; guztietan, berak dira protagonista: Lichi, Javierito, Mauro / Peluo, Indio Rey, Pombito / Nuño, Orlandito, Junior... Flanboyanpeko koadrila alegera beti... Leku jakinak, pertsona jakinak, eta pertsonari, nornahi dela ere, nonahi eta noiznahi dela ere, berezko zaizkion neke eta penak, poz eta minak, nahi eta ezinak, hogeitaka ataletan kontatua, narrazio bat bakarra osatuz. Narrazio bat, edo nobela, Urrutia Capeauk bere buruari egindako galderak erantzun nahirik idatzia. Zerk eraman du Nuño Jururúra? Nuño, Freireko institutuan kimika irakasle izana, naufrago gisa bizi dena? Edo Angelito, laurogei urteko gizona, bi urte gazteagoa den emaztearekin bizi dena, Jururúko Iraultza Defenditzeko Batzorde edo CDRko burua, oraindik arrantzara joan beharrean dagoena, arrantzara gauez joan ere! Eta Urrutia Capeauren galdera: «Zertarako segi bizitzen urruneko xoko hartan, seme-alabek Holguinera deituagatik ere? Eta hainbat misterio. Liburuan horien ororen berri ematen dut, soluzione bederarekin».

Irakurri dut Jururú. John Steinbecken harako *Tortilla Flat* etorri zait gogora. Noizbait, hogeita hamar urte duela, Koro Navarrok euskarara eder eta euskara ederrera ekarri ziguna. Bestelako euskara ederra da Urrutia Capeaurena. Usteko genuen ohituak ginela idazteko duen moldera. Leizarraga, Tartas, Axular. Irakurriak dizkiogu *Izar beltzaren urtea*, *Ergelen nonbrea*, *Assilab-ko eroa*, *Weylerren itzala*... eta, klasikoen bidetik jotzen besterik ez badaki ere, dio bide berrietan barna abiatu dela *Jururú* idaztean, eginkizun berria izan duela «izkribatzeko manera ez baita berdin izan behar Pertsia zaharreko istorio batean, *Mila eta bat gauetako* batean, kolonia denborako Kubakoan, are gutiago egungoan, eta Orienteko xoko hartako bizimoldea aipatzean».

Irakurri dut *Jururú*. Miragarri zait guri mundu urruneko zaiguna hain hurreko egin izana. Miragarri zait pertsonaia urruneko haiek etxekotu izana. Jururúrekin bat egiteko izan duen ahalmena. Miresgarri zait ez Jururúko bizimodua, baina bizia, jendea, erakusteko egin duen saioa. Eta Jururú Kuba izanik, Iraultzaren esanak baino, haren kontraesanak bistara ekartzeko lerro artean, baina nabarmen, utzi dizkigun aztarnak.

Irakurri dut Jururú. Urrutia Capeauren margolan ederrek kolorez ederragotua. Haize freskoa izan zait. Arnasa, itomen honetan. Nire aldetik, biziki estimatzen diot, gogo onez, Kubako ekialdeko Jururú hartatik egin duen *Jururú* hau.